Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko ekainaren 18a, asteazkena — 114 — Miércoles, a 18 de junio de 2025

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA

*Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen adierazpen estrategikoa.*

### 1. AURREKARIAK

2014ko maiatzean, Usurbilgo Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko eta izapidetzeko prozesua hasi zuen.

Hiri antolamenduko plan orokorrei (HAPO) ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie behin betiko onartu aurretik. Beraz, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera, 2015eko uztailaren 24an, Usurbilgo Udalak planaren ingurumen ebaluazio estrategikorako irismen dokumentua egiteko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari –une horretan, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia zenari–.

Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak, eragindako administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egin ondoren, 2015eko abenduaren 22an eman zuen HAPOren ingurumen azterketa estrategikoaren (IAE) irismen dokumentua. Dokumentu horretan, egindako kontsulten erantzunak helarazi ziren, plana egiteko kontuan hartu beharreko ingurumen helburu eta irizpide estrategikoak adierazi ziren, proposamenen lehen ingurumen balorazioa egin zen, kontuan hartu beharreko funtsezko ingurumen alderdiak identifikatu ziren eta planaren ingurumen azterketa estrategikoak izan behar zuen edukia eta irismena zehaztu ziren.

Azkenik, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitako izapidetzea aplikatuz, 2025eko otsailaren 18ko idazkiaren bidez, Usurbilgo Udalak Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi dio Udalbatzak HAPO behin-behinean onartu duela, espediente osoa bidali du eta dagokion ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatu du.

### 2. USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA OSATZEN DUTEN ELEMENTU NAGUSIEN DESKRIBAPENA

Usurbilgo HAPOren berrikuspenak lau helburu orokor eta 24 helburu partikular ezarri ditu, eremuen arabera banatuta (ingurune fisikoa, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, etab.). Helburu orokorren artean, lehenengoa azpimarra daiteke: Hirigintza jasangarriko eta ekologikoko irizpideak txertatzea. Helburu hori betetzeko, besteak beste, honako neurri hauek aurreikusi dira:

— Balio ekologiko eta natural handieneko eremuak babestea.

— Gehiegizko lurzoru kontsumoa saihestuko duen hiri eredu trinko bat aukeratzea, bizitza soziala eta garraio kolektiboa ahalbidetzeko.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE SOSTENIBILIDAD

*Declaración Ambiental Estratégica del Plan General de Ordenación Urbana de Usurbil*

### 1. ANTECEDENTES

En mayo de 2014, el Ayuntamiento de Usurbil inició el proceso de redacción y tramitación del Plan General de Ordenación Urbana.

Los Planes Generales de Ordenación Urbana (PGOU) deben someterse a una evaluación ambiental estratégica ordinaria antes de su aprobación definitiva, por lo que, conforme al procedimiento establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica, el Ayuntamiento de Usurbil solicitó el 24 de julio de 2015, a la Dirección General de Administración Ambiental de la Diputación Foral de Gipuzkoa –en ese momento Dirección General de Medio Ambiente–, la emisión del documento de alcance para la evaluación ambiental estratégica del plan.

La Dirección General de Administración Ambiental, previa consulta a las administraciones públicas afectadas y al público interesado, emitió el 22 de diciembre de 2015 el documento de alcance del estudio ambiental estratégico (EsAE) del PGOU, en el que se daba traslado de las respuestas a las consultas efectuadas, se señalaban los objetivos y criterios ambientales estratégicos a tener en cuenta en la elaboración del plan, se realizaba una primera valoración ambiental de las propuestas, se identificaban los aspectos ambientales fundamentales a considerar y se especificaba el contenido y alcance que debía tener el estudio ambiental estratégico del plan.

Finalmente, y en aplicación de la tramitación prevista en la Ley 21/2013 de la Ley, de 9 de diciembre, mediante escrito del 18 de febrero de 2025, el Ayuntamiento de Usurbil ha comunicado a la Dirección General de Administración Ambiental la aprobación provisional del PGOU por parte del Pleno Municipal, ha remitido el expediente completo y solicitado la emisión de la correspondiente declaración ambiental estratégica.

### 2. DESCRIPCIÓN DE LOS PRINCIPALES ELEMENTOS QUE CONFORMAN EL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE USURBIL

La revisión del PGOU de Usurbil se ha marcado cuatro objetivos generales y 24 objetivos particulares distribuidos por áreas (medio físico, vivienda, actividades económicas, etc.). Entre los objetivos generales, se puede resaltar el primero de ellos: La incorporación de criterios de urbanismo sostenible y ecológico. Para el cumplimiento de dicho objetivo, se han previsto, entre otras las siguientes medidas:

— Proteger las zonas de mayor valor ecológico y natural.

— Elegir un modelo de ciudad compacto que evite el consumo excesivo de suelo, posibilitando la vida social y el transporte colectivo.

EK\CV GAO-I-2025-04330

— Eraikinak birgaitzea eta berrerabiltzea, eta dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzorua optimizatzea, lehendik dauden espazioetan eraikiz, aipatutako trinkotzea bilatzeko.

— Erabilerak eta tipologiak misto bihurtzea, biztanleria anitza lortu eta erabilera desberdinen hurbiltasuna bermatzeko.

— Herriko auzoetan ekipamendua eta zerbitzuak modu orekatuan banatzea, herritarren eskura egon daitezen.

— Mugikortasun jasangarria sustatzea, distantzia laburrak oinez eta bizikletan egin daitezen errazteko eta distantzia luzeagoko ibilbideetan garraio publikoari lehentasuna emanez garraio pribatuaren aldean.

— Maila guztietako elementuekin berdeguneen sare bat diseinatzea.

Bestalde, HAPO behin-behineko onesteko dokumentuan sartutako proposamen nagusiei dagokienez, honako hauek dira, laburbilduta:

* Lurzoruaren sailkapena. Indarreko arau subsidiarioei dagokienez, egun urbanizagarri gisa sailkatutako 13,7 ha lurzoru HAPO berrian lurzoru ez urbanizagarri izatera igaro dira. Nabarmentzekoa da horietako asko ibaiertzeko balio agrologiko handiko lurzoruak direla. Erabaki da, udalerriaren premiei erantzuteko, lurzoru berrien ordez, lehentasunez, gaur egun urbanizatuta dauden lurzoruak berroneratzea edo garatzeke daudenak berrantolatzea.

* Etxebizitza. Ez da lurzoru urbanizaezina okupatzen bizitegi garapenetarako, eta, gainera, zenbait lursail okupatzea saihesten da, antolamendu trinkoago baten bidez. Ondorioz, bizitegi garapenak berroneratze eremu eraikietara eta zahartuetara mugatu dira, edo hiri bilbean integratutako eremuetara, zeinetan, etxebizitzaz gain, beste hirigintza helburu batzuk bete nahi baitira. Hala, HAPOk 62 ha kalifikatu ditu bizitegi erabilera orokorrerako, hau da, indarrean dauden arau subsidiarioetan xede horretarako bideratutako azaleraren % 17ko murrizketa egin du. Guztira, 715 etxebizitza berri antolatu dira –707 eraikin berrietan eta 8 egungo eraikin batzuk berrantolatuta–, eta Donostialdea-Bidasoa Behereko eremu funtzionaleko LPPko eta LAGetako bizitegi kuantifikazioko parametroen barruan daude. Aurreko plangintzarekin alderatuta, aurreikuspen horrek suposatzen du etxebizitza berriak % 15 murriztuko direla. Bestalde, antolatutako etxebizitza eremu gehienak etxebizitza kolektiboko bizitegiak dira, eta dentsitate txikikotzat kalifikatu direnak, berriz, lehendik zeuden baina oraindik eraiki gabe zeuden lurzati txikiak dira. Etxebizitzen babes araubideari dagokionez, % 62 babes publikokoak izango dira. Era berean, alderdi horretan hobekuntza bat dago indarreko arau subsidiarioekin alderatuta; izan ere, arau horietan, eraikitzeko dauden etxebizitzen % 35 baino ez ziren babestuak. Azkenik, udalerriko espazio banaketari dagokionez, 558 (% 78) hirigunean kokatuko dira, 63 Zubietan (% 9), 10 Txokoalden (% 1) eta 76 Aginagan (% 11). Gune horietako bakoitzean honako garapen eremu hauek nabarmendu behar dira: hirigunean, HE 18 Olarriondo (316 etxebizitza) eta AT.02 Zingirategi (87 etxebizitza); Zubietan, ZU.03.01 Errota (53 etxebizitza); eta Aginagan, 06.01 Etxe Lorea (41 etxebizitza).

* Jarduera ekonomikoak. Alde batetik, jorratu dira industria lurzoruak, hirugarren sektorekoak eta erabilera mistokoak, eta, bestetik, hiriguneetako hurbileko jarduera (batez ere saltokiak eta zerbitzuak).

Lehenengoei dagokienez, 54 ha industria erabileretarako erabili dira, 9,5 ha hirugarren sektoreko erabileretarako eta 8 ha lurzoru mistorako. Azken horretan, industria, ekipamendu eta bizitegi erabilerak nahasten dira. Honako antolamendu irizpide hauek ezarri dira:

— Indarreko arau subsidiarioetan finkatzen dira hiri lurzoruan kalifikatutako jarduera ekonomikoetarako eremu guztiak, ZU.03 Errota eta Zingirategi eremuak izan ezik. Lehenari dagokionez,

— Proceder a la rehabilitación y reutilización edificatoria y optimizar el suelo ya urbanizado, edificando en espacios existentes y buscando la citada compactación.

— Conseguir la mixtificación de usos y tipologías, logrando la diversidad de la población y garantizando la cercanía de los diferentes usos.

— Distribuir equilibradamente el equipamiento y los servicios en los diferentes barrios de la localidad para que estén al alcance de la ciudadanía.

— Fomentar la movilidad sostenible, facilitando el uso peatonal y ciclista en distancias cortas y primando el transporte público frente al privado en trayectos de mayor distancia.

— Diseñar una red de zonas verdes con elementos de todos los niveles.

Por otra parte, en cuanto a las principales propuestas incorporadas en el documento de aprobación provisional del PGOU, de forma resumida son las siguientes:

* Clasificación del suelo. Con respecto a las NNSS vigentes, 13,7 ha que en las mismas aparecen clasificadas como suelo urbanizable pasan a ser suelo no urbanizable (SNU) en el nuevo PGOU, pudiendo destacarse que, muchas de ellas, son suelos de alto valor agrológico de ribera. Se ha decidido que, en lugar de nuevos suelos, las necesidades del municipio se atiendan prioritariamente a través de la regeneración de suelos actualmente urbanizados o mediante la reordenación de aquellos que se encuentran pendientes de desarrollo.

* Vivienda. No se ocupa SNU para desarrollos residenciales y se evita, además, la ocupación de varios terrenos mediante una ordenación más compacta. Por consiguiente, los desarrollos residenciales se han circunscrito a áreas de regeneración edificadas y envejecidas, o áreas integradas en la trama urbana en las que, además de la vivienda, se busca cumplir otros objetivos urbanísticos. Así, el PGOU ha calificado unas 62 ha para uso residencial general, lo que supone una reducción del 17 % de la superficie destinada a dicho fin en las NNSS vigentes. En total se ordenan 715 nuevas viviendas –707 en nuevas edificaciones y 8 reordenando varios edificios actuales–, encontrándose dentro de los parámetros de cuantificación residencial del PTP del área funcional de Donostialdea-Bajo Bidasoa y de las DOT. En comparación con el anterior planeamiento, esta previsión supone una reducción en un 15 % de las viviendas nuevas. Por otra parte, la mayor parte de los ámbitos de vivienda ordenados son residenciales de vivienda colectiva y, los que se han calificados como de baja densidad, son pequeñas parcelas preexistentes que aún no se habían construido. En cuanto al régimen de protección de las viviendas, el 62 % serán de protección pública. También, en este aspecto hay una mejora respecto a las NNSS vigentes, ya que, en las mismas, de las viviendas pendientes de construir, solo el 35 % eran protegidas. Finalmente, en cuanto a su distribución espacial en el término municipal, 558 (78 %) se situarán en el casco urbano, 63 en Zubieta (9 %), 10 en Txokoalde (1 %) y 76 en Aginaga (11 %). Los ámbitos de desarrollo a destacar en cada uno de estos núcleos son: en el casco urbano, HE 18 Olarriondo con 316 viviendas y AT.02 Zingirategi con 87 viviendas, en Zubieta, ZU.03.01 Errota con 53 viviendas y en Aginaga 06.01 Etxe Lorea con 41 viviendas.

* Actividades económicas. Se ha abordado, por un lado, los suelos industriales, terciarios y de uso mixto, y, por otro, la actividad de proximidad en los núcleos urbanos (principalmente comercios y servicios).

En cuanto a los primeros, se han destinado 54 ha a usos industriales, 9,5 ha a usos terciarios y 8 ha a suelo mixto, en el que se mezclan tanto usos industriales como de equipamiento y residenciales. Los criterios de ordenación establecidos han sido los siguientes:

— Se consolidan todas las áreas de actividades económicas calificadas en suelo urbano en las NNSS vigentes, a excepción de la zona ZU.03 Errota y la de Zingirategi. En cuanto a la primera,

EK\CV GAO-I-2025-04330

gaur egun aktibo dagoen eremu hori lehentasunezko fluxu eremuan dagoenez, proposatzen da egungo industria jarduera eteten bada, eremu horretan sartutako azalera askatzea, bertan dauden oztopoak eta betelanak kentzea eta ibai parke bat sortzea. Era berean, lehen azaldu den bezala, lehentasunezko fluxu eremutik kanpo, bizitegi garapen txiki bat kokatuko da (ZU.03.01 Errota). Bigarrenari dagokionez, proposatzen da Atallu industrialdeko (lehengo Ingemar) lurzati industrial bat berrantolatzea, tren geltokiaren ondoan, erabilera mistoko eremu bat garatzeko. Bertan, uztartuko dira AT.02 Zingirategi eremuaren bizitegi erabilera, industria arina, ekipamendu orokorreko erabilerak –Usurbilgo eskola profesionala handitzea– eta Oriaren ertzean ibai parke bat sortzea, Zumartegi industrialdearen ertzean hasitako esku-hartzeari jarraipena emanez.

— Bestalde, egungo Arau Subsidiarioek lurzoru urbanizagarrian antolatutako 4,5 hektareetatik, Aginagako Txagaineta industrialdeari baino ez zaio eutsi (0,5 ha) 2016an onartutako mugaketa berriarekin.

— Azkenik, TX.03 Zapategi eremua birsortuko da (5,2 ha). Michelin eremuaren parte izan zen, eta, abandonatuta dagoenez, proposatzen da industria jarduera berriak garatzea ahalbidetuko duen antolamendu bat.

Hirigunetatik gertuko merkataritza jarduerari dagokionez, Udalaren helburua da mantentzea eta indartzea hiriguneetako merkataritza, zerbitzuak eta ekipamendu sarea, hala Usurbilgo hirigunean nola auzoetan. Horretarako, HAPOk hainbat proposamen egiten ditu, hala nola HE. Olarriondo eremuaren hegoaldean tokiko merkataritza zentro bat kokatzea, Puntapax kalearen plaza osatzen duten eraikinen beheko solairuetan.

* Ekipamendu komunitarioak-sistema orokorra. HAPOk 12,2 ha bideratzen ditu xede horretara, eta indarreko arau subsidiarioetan baino 2,7 ha gehiago. Besteak beste, proposamen hauek aipa daitezke:

— Kalezar auzoan, Zaintzadun Auzoa eremuan, Matia Fundazioak egoitza zentro berritzaile bat eraikiko du. Gainera, eraikinari lotuta, plaza handi bat sortuko da, egoiliarren eta auzoko bizilagunen arteko elkargunea izango dena, bai eta egoitzaren aurrean dagoen haur eskolarena ere. Era berean, aurreikusten dira auzoa N-634 errepidearekin lotuko duten igogailu publikoak, Lurraldebusen geralekuak eta errepide horren ondoan proposatzen den oinezkoentzako/bizikletentzako bide berria.

— Landa lurzoruan, Orbeldiko ur amilen kanala jasotzen da, Gipuzkoako Piraguismo Federazioak sustatutakoa.

* Espazio libreen sarea-sistema orokorra. Hiri lurzoruan, HAPOk 22 ha-ko azalera kalifikatzen du hiri espazio libreen sistema orokorretarako –hiri lurzoruaren % 12–. Indarrean dauden arau subsidiarioen aldean, sarea 15,6 hektarea handitu da. Nabarmentzekoak dira HAPOk Oria ibaiaren ertz urbanizatuak berreskuratzeko eta ibai horrekin muga egiten duten industria eremu guztietan ibai parkeak sortzeko proposatutako esku-hartzeak. Horietako batzuk aurreko ataletan aipatu dira; besteak beste, hirigunean, Zumartegi, Osinalde, Zelai Handi eta Zingirategiko industria eremuetan; Santuenean, zubiaren ondoko eremuan, eta, azkenik, Zubietan, Errota eremuan.

Gainera, aurrekoei espazio libreen sareko beste jarduketa batzuk gehitu behar zaizkie, besteak beste, Aranerreka parkea (65.000 m²), izen bereko errekari lotua. Agerreazpi eta Olarriondoko bizitegi eremuei lotuta dago, eta, proiektu bakarrarekin bada ere, fase desberdinetan garatuko da, eremu desberdinetan kokatuta dagoelako. Herriko auzoak lotzea ahalbidetuko du.

Bestalde, landa eremuan, proposatzen da parke publikoen sare bat sortzea, natura eta paisaia balioengatik, ezaugarri morfologikoengatik edo kokapenagatik. Guztira, 25,5 ha-ko azalera

dado que ese ámbito actualmente activo se sitúa en la zona de flujo preferente, se propone, en el caso de cese de la actividad industrial actual, liberar la superficie incluida en dicha zona, eliminar los obstáculos y rellenos existentes en la misma y crear un parque fluvial. Asimismo, como se ha expuesto anteriormente, fuera de la zona de flujo preferente, se ubicará un pequeño desarrollo residencial (ZU.03.01 Errota). Respecto a la segunda, se propone la reordenación de una parcela industrial del polígono Atallu (antiguo Ingemar), situada junto a la estación del tren, para el desarrollo de un ámbito de uso mixto, en el que se compaginará el uso residencial del área AT.02 Zingirategi, la industria ligera, los usos de equipamiento general –ampliación de la escuela profesional de Usurbil–, y la creación de un parque fluvial en la ribera del Oria dando continuación a la intervención iniciada en la ribera del polígono Zumartegi.

— Por otra parte, de las 4,5 ha ordenadas por las NNSS actuales en suelo urbanizable, solo se ha mantenido el área industrial de Txagaineta en Aginaga de 0,5 ha, con la nueva delimitación aprobada en 2016.

— Finalmente, se regenerará el área TX.03 Zapategi (5,2 ha). Formó parte del ámbito de Michelin y, dado que está abandonado, se propone una ordenación que permita el desarrollo de nuevas actividades industriales.

Respecto a la actividad comercial en la proximidad de los núcleos urbanos, el ayuntamiento se marca el objetivo de mantener y/o reforzar el comercio, los servicios y la red de equipamientos de proximidad en los núcleos urbanos, tanto en el casco urbano de Usurbil como en los barrios. Para ello, el PGOU presenta varias propuestas, como la ubicación de un centro comercial de carácter local en la parte sur del ámbito HE. Olarriondo, en las plantas bajas de los edificios que conforman la plaza de la calle Puntapax.

* Equipamientos comunitarios-sistema general. El PGOU destina a este fin 12,2 ha, ampliándose en 2,7 ha respecto a las NNSS vigentes. Se puede citar entre otros las siguientes propuestas:

— En el barrio de Kalezar, el ámbito Zaintzadun Auzoa donde la Fundación Matia construirá un centro residencial innovador. Además, vinculada al edificio, se creará una gran plaza que será un punto de encuentro entre residentes y vecinos del barrio, así como de la escuela infantil situada frente a la residencia. Asimismo, se prevén ascensores públicos que enlazarán el barrio con la N-634, las paradas de Lurraldebus y la nueva vía peatonal/ciclista que se propone junto a dicha carretera.

— En suelo rural, se recoge el canal de aguas bravas de Orbeldi que promueve la Federación de Piragüismo de Gipuzkoa.

* Red de espacios libres-sistema general. En suelo de naturaleza urbana, el PGOU califica una superficie de 22 ha para los sistemas generales de espacios libres urbanos –el 12 % del suelo de carácter urbano–. Respecto a las NNSS vigentes, la red se ha ampliado en 15,6 hectáreas. Cabe destacar las intervenciones propuestas por el PGOU para la recuperación de las márgenes ya urbanizadas del río Oria y la creación de parques fluviales en todos los ámbitos industriales existentes que limitan con dicho río, parte de las cuales ya se han citado en los anteriores apartados. Así se tienen, dentro del núcleo urbano, en las áreas industriales de Zumartegi, Osinalde, Zelai Handi y Zingirategi; en Santuenea en la zona contigua al puente y, por último, en Zubieta en el ámbito Errota.

Además, a los anteriores, hay que añadir otras actuaciones en la red de espacios libres, entre las que podemos destacar el Parque Aranerreka (65.000 m²) vinculado al arroyo del mismo nombre. Está asociado a los ámbitos residenciales de Agerreazpi y Olarriondo, y, aunque con un único proyecto, se desarrollará en diferentes fases debido a su emplazamiento en distintos ámbitos. Permitirá la conexión entre los diferentes barrios de la localidad.

Por otra parte, en el ámbito rural, se propone la creación de una red de parques públicos por sus valores naturales y paisajísticos, por sus características morfológicas o de ubicación. Su su-

EK\CV GAO-I-2025-04330

izango du. Hauek dira aurreikusitako landa parkeak: Arranerrekakoa, hiri lurzoruan sortutako parkeari jarraipena ematen diona; Leizekaldeakoa, egungo parkearen zabaltzea izango litzatekeena –Arau Subsidiarioetan deklaratuta dago–; eta Andatza, Zubieta eta Santueneakoak.

* Mugikortasuna. HAPOk 4 helburu ezartzen ditu mugikortasunaren arloan:

— Mugikortasun jasangarria sustatzea, oro har, eta mugikortasun aktiboa, bereziki.

— Bide sarea egokitzea herriko eta auzoetako sarrerak eta irteerak hobetzeko, eta ahal den neurrian ibilgailuen trafikoa herrigunetik urruntzea.

— Auzoetako aparkaleku beharrei erantzutea.

— Trenbide sarearen trazadura aldatzeko (ETS) eta geltoki berriak jartzeko proposamenak sartzea.

Eremu horretako ekimenen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

— Usurbilgo biztanleguneetako eguneroko mugikortasunean, oinezkoen lehentasunezko eremuak handitu nahi dira, bai egungoak handituz, bai auzo desberdinetan berriak sortuz. Horretarako, besteak beste, aparkalekuak proposatzen dira: Portalmusubera, Olarriondo, Etxealdia eta Santuenea. Gainera, zenbait igogailu publiko sortzea proiektatu da, hala nola Kalezar auzokoak edo hiriguneko tren geltoki berriaren inguruan egingo direnak.

— Usurbilgo auzoen eta herri mugakideen arteko mugikortasunean. Garraio publikoa indartzeaz gain, funtsezkotzat jo da oinezkoentzako eta bizikletetarako sare bat sortzea, udalerria artikulatu eta Usurbilgo auzoak eta herrigunea lotzeko eta ondoko udalerrietara –Lasarte-Oria, Donostia eta Orio– joateko. Horrela, proposatzen da Txikierdi eta hirigunea N-634 errepidearekin paraleloan lotzea. Bide hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidegorri sarearen parte da.

— Garraio publikoa. Trenbide sarea. Zerbitzua hobetuko da tren geltoki berriarekin eta ETSk aurreikusi bezala maiztasuna zabalduta. Horrekin batera, Donostialdeko LPPan aurreikusten den bezala, proposatzen da Txokoaldeko tren geltokia eta San Estebango tunela berreskuratzea, nahiz eta ekimen horiek Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura Sailaren onarpenaren zain dauden.

— Errepide sarea.N-634 errepideak eragin handia du Usurbilgo udalerrian; horregatik, hainbat jarduketa proposatzen dira segurtasuna hobetzeko eta sortzen dituen eragozpenak gutxitzeko. Hala, honako hauek aipa daitezke:

≡ Trafikoa baretzea N-634 errepidean, Aginaga parean.

≡ Biribilgune berriak eraikitzea N-634 errepidetik Txokoalde eta Bizkarrerako sarreran segurtasuna hobetzeko.

≡ N-634 eta GI-3831 errepideek bat egiten duten tokian, proposatzen da Txikierdi auzoko gurutzagunea berrantolatzea biribilgune berria eraikita.

* Lurzoru urbanizaezina. Zonakatzea egiteko, ingurumen unitateen identifikazioa eta plan eta araudi sektorialek (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSa, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSa, Hezeguneen LPSa eta Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LPSa) ezarritako kategoriak eta baldintzatzaileak hartu dira kontuan. Era berean, itsas-lehorreko jabari publikoaren eta onura publikoko mendien mugaketa eta baldintzak sartu dira. Honako zonakatze hau bereizten da:

— Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuak. Landa lurzoruaren % 31 hartzen dute. Honako kategoria hauek barne hartzen dituzte:

≡ Oriako erriberako balio estrategiko handiko nekazaritza lurzoruak. Lurzoru horietako batzuk «Oriaren itsasadarreko EAEko

perficie total alcanzará las 25,5 ha. Estos son los parques rurales previstos: el de Arranerreka que da continuidad al parque creado en suelo urbano, el de Leizekaldea que sería una ampliación del actual, ya declarado en las NNSS, y los de Andatza, Zubieta y Santuenea.

* Movilidad. El PGOU se marca 4 objetivos en materia de movilidad:

— Impulsar la movilidad sostenible en general y la movilidad activa en particular.

— Adecuación de la red viaria para mejorar las entradas y salidas del pueblo y barrios, y alejar en lo posible el tráfico rodado del núcleo urbano.

— Atender a las necesidades de aparcamiento de los barrios.

— Incorporación de las propuestas de modificación del trazado de la red ferroviaria (ETS) y de nuevas estaciones.

Entre las iniciativas dentro de este ámbito, se pueden destacar las siguientes:

— Dentro de la movilidad cotidiana en los núcleos de población de Usurbil, se busca ampliar las zonas de prioridad peatonal, tanto ampliando las actuales como creando nuevas en los diferentes barrios. Para ello se propone, entre otros aspectos, diferentes zonas de aparcamiento: Portalmusubera, Olarriondo, Etxealdia y el de Santuenea. Además, se proyecta la creación de varios ascensores públicos como los del barrio de Kalezar ya citados o los que se realizarán en conexión con la nueva estación de tren del casco urbano.

— Dentro de la movilidad entre los barrios de Usurbil y las localidades limítrofes. Además de reforzar el transporte público, se ha considerado fundamental la creación de una red peatonal y ciclista que articule el municipio para conectar los barrios y el núcleo de Usurbil y permita dirigirse a las localidades vecinas –Lasarte Oria, Donostia-San Sebastián y Orio–. Se propone así la conexión de Txikierdi y el casco urbano en paralelo a la carretera N-634. Esta vía forma parte de la red de bidegorris de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Transporte público. Red Ferroviaria. Se mejorará el servicio con la nueva estación del tren y con la ampliación de frecuencias ferroviarias que prevé ETS. Junto a ello, se propone, tal y como se contempla en el PTP de Donostialdea, la recuperación de la estación de tren de Txokoalde y el túnel de San Esteban, aunque estas iniciativas están a expensas de la aprobación del Departamento de Infraestructuras del Gobierno Vasco.

— Red de carreteras. La N-634 tiene una gran incidencia en el municipio de Usurbil, por lo que se proponen una serie de actuaciones para mejorar la seguridad y minimizar las molestias que genera. Así, se puede citar:

≡ El calmado del tráfico en la N-634 a su paso por Aginaga.

≡ La construcción de nuevas glorietas para mejorar la seguridad en la entrada a Txokoalde y Bizkarre desde la N-634.

≡ En la confluencia de la N-634 con la GI-3831, se propone la reordenación del cruce del barrio de Txikierdi con la construcción de una nueva glorieta.

* Suelo no urbanizable. Su zonificación se ha realizado en base a la identificación de las unidades ambientales y las categorías y condicionantes establecidos por planes y normativas sectoriales tales como: el PTS Agroforestal, el PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos, El PTS de Zonas Húmedas y el PTS de Protección y Ordenación Litoral. Asimismo, se han incorporado la delimitación y condicionantes del dominio público marítimo-terrestre y la de los montes de utilidad pública. Se diferencia la siguiente zonificación:

— Zonas agroganaderas. Ocupan el 31 % del suelo rural. Incluyen las siguientes categorías:

≡ Suelos agrarios de alto valor estratégico de la ribera del Oria. Parte de estos suelos están incluidos en el grupo II del «In-


EK\CV GAO-I-2025-04330

Hezeguneen Inbentarioaren» II. taldean sartuta daude, eta, beraz, «Oriako ibaiertzeko balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzoruak - Hezeguneen LPS» azpikategoria bereizten da. Azpikategoria horretan, LPS horretan jasotako araudia aplikatuko da.

≡ Balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruak. Udalerrian bai baina Oria ibaiaren ibarretik kanpo dauden nekazaritzarako potentzial handiko lurzoruak barne hartzen ditu; horietako asko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak balio estrategiko handiko lurzoru gisa deklaratzen ditu.

≡ Trantsizioko nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruak. Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak biltzen dituzten landa lurzoruak dira, baina ekoizpen errendimendu txikiagoa dute.

— Mendi eremuak. Landa lurzoruaren % 51 dira. Mendiko baso eremua kategoria hartzen du. Landa eremu horiek, beren ezaugarriengatik eta ingurumen arriskuetatik babesteko duten ahalmenagatik, zuhaitz estalkia mantentzeko bokazioa duten lurzoruei dagozkie. Bestalde, udalerriaren hego-mendebaldean dagoen eremuaren zati handi bat Irisasi onura publikoko mendiaren parte da, eta, beraz, Baso-mendiko eremua - Onura publikoa izeneko azpikategoria bat bereiziko da.

— Ingurumen hobekuntzako eremuak: Landa lurzoru osoaren % 6 dira. Honako kategoria hauek barne hartzen dituzte:

≡ Ekosistemak hobetzeko eremuak - Itsasertzeko LPS (MA1). Lurzoru horiek EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean sartzen dira, ekosistemen hobekuntza kategorian. Eremu horretan, lurralde plan sektorial horretan jasotako araudia aplikatuko da. Gainera, eremu horren zati bat itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eraginpean dago, eta, beraz, Ekosistemen hobekuntza eremuak - Itsasertzaren LPS azpikategoria bereiziko da. Azpikategoria horretan, kostaldeen arloan indarrean dauden xedapenak aplikatuko dira.

≡ Lehengoratu beharreko eremu degradatuak. Kategoria honetan sartutako lurzoru gehienak Itsasertzaren LPSak Itsasertzaren LPSaren Berreskuratu beharreko Eremu Degradatuak (MA2) kategoriaren barruan kokatzen dituenak dira, eta barne hartzen ditu ekintza antropikoak degradatu dituen eta leheneratzeko potentziala duten eremuak, baina aurreko kategoriakoak baino ingurumen balio txikiagoa dutenak. Azpikategoria bat bereizten da haientzat: Lehengoratu beharreko eremu degradatuak - Itsasertzeko LPS (MA2).Kategoria honetan sartutako gainerako eremuak dira baimenik gabe egindako betelanak, zabortegiak eta abar izan dituzten lurzoru degradatuak.

— Azaleko urak babesteko zonak. Landa lurzoru osoaren % 9 dira. Lurzoru urbanizaezinetik eta haren ertzetatik igarotzen diren ibilguei dagozkien landa eremuak dira, eta, besteak beste, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean jasotakoak. Arlo horretan indarrean dagoen legerian, aipatutako plan sektorialean eta, hala badagokio, hirigintza plangintzan bertan ezarritako irizpideen arabera antolatuko dira. Erabilera bateragarriak dituzten beste eremu batzuekin gainjartzen direnean, hala nola Oriako erriberako balio estrategiko handiko nekazaritza lurzoruekin, eremu horien babes araubidea nagusituko da. Bestalde, haren zati bat itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren eraginpean dago, eta, beraz, Azaleko urak babesteko eremuak-ILJP izeneko azpikategoria bat bereiziko da. Azpikategoria horretan, kostaldeen arloan indarrean dauden xedapenak aplikatuko dira.

— Babes bereziko landa eremuak. Landa lurzoru osoaren % 4 hartzen dute. Bi kategoria bereizten dira:

≡ Oriaren itsasadarreko hezegunea, babes bereziko eremua. Eremua bat dator EAEko Hezeguneen Inbentarioan jasotako «Oriako itsasadarra» izeneko hezegunearekin, eta, era berean, Oriako itsasadarreko KBEaren parte da. Oro har, antolamendua Hezeguneen LPSan ezarritakoan oinarritzen da. Eremu horren zati bat itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoaren eraginpean dago, eta, beraz, Oriaren itsasadarreko Hezegunea - babes bereziko eremua (ILJP) azpikategoria bereizten da, non kostaldeen arloan indarrean dauden xedapenak aplikatuko baitira.

ventario de Zonas Húmedas de la CAPV de la ría del Oria», por lo que se diferencia la subcategoría «Suelos agrícolas de alto valor estratégico de la ribera del Oria-PTS Zonas Húmedas» en la que será de aplicación la normativa recogida en dicho PTS.

≡ Suelos agroganaderos de alto valor estratégico. Incluye suelos de gran potencial agrario del municipio situados fuera de la vega del río Oria, muchos de ellos declarados como suelos de alto valor estratégico por el PTS Agroforestal.

≡ Suelos agroganaderos de transición. Son suelos rústicos que agrupan actividades agroganaderas, pero que son de menor rendimiento productivo.

— Zonas de monte. Representan el 51 % del suelo rural. Incluye la categoría Zona de Monte Forestal. Son zonas rurales que, por sus características y capacidad de protección frente a riesgos ambientales, corresponden a suelos con vocación de mantenimiento de una cubierta arbolada. Por otra parte, gran parte del ámbito situado al suroeste del municipio, forma parte del monte declarado de utilidad pública Irisasi, por lo que se distinguirá una subcategoría denominada Zona de Monte Forestal-Utilidad Pública.

— Zonas de mejora ambiental. Representan el 6 % del total del suelo rural. Incluyen las siguientes categorías:

≡ Zonas de mejora de ecosistemas-PTS Litoral (MA1). Estos suelos se incluyen en el PTS de protección y ordenación del Litoral de la CAPV en la categoría de Mejora de Ecosistemas. En esta zona será de aplicación la normativa recogida en dicho PTS. Además, parte de esta zona, está afectada por el Dominio Público Marítimo Terrestre por lo que se distinguirá la subcategoría Zonas de mejora de ecosistemas-PTS Litoral-DPMT en la que será de aplicación las disposiciones vigentes en materia de costas.

≡ Zonas degradadas a recuperar. La mayor parte de los suelos incluidos en esta categoría son los que el PTS del Litoral enclava dentro de la categoría Áreas Degradadas a recuperar (MA2) del PTS del Litoral e incluye zonas degradadas por la acción antrópica y con potencial de recuperación, pero con valores ambientales menores a los de la categoría anterior. Se distingue una subcategoría para los mismos: Zonas degradadas a recuperar-PTS Litoral (MA2). El resto de las áreas incluidas en esta categoría son suelos degradados que han sufrido rellenos, vertederos, etc., realizados sin autorización.

— Zonas de protección de aguas superficiales. Representan el 9 % del total del suelo rural. Son ámbitos rurales correspondientes a los cauces que discurren por SNU y sus márgenes y, entre otros, los recogidos por el PTS de márgenes de ríos y arroyos de la CAPV. Se ordenarán según los criterios establecidos en la legislación vigente en la materia, el citado plan sectorial y, en su caso, en el propio planeamiento urbanístico. Cuando se superpongan con otros ámbitos cuyos usos sean compatibles, tales como Suelos agrarios de alto valor estratégico de la ribera del Oria, prevalecerá el régimen de protección de estas zonas. Por otro lado, parte de la misma se encuentra afectada por el Dominio Público Marítimo Terrestre, por lo que se distinguirá una subcategoría denominada Zonas de protección de aguas superficiales-DPMT en la que será de aplicación las disposiciones vigentes en materia de costas.

— Zonas Rurales de Especial Protección. Ocupan el 4 % del total del suelo rural. Se distinguen dos categorías:

≡ Humedal de la ría del Oria, zona de especial protección. El ámbito coincide con el humedal denominado «Ría del Oria» recogido en el Inventario de Humedales de la CAPV y, forma parte asimismo de la ZEC Ría Oria. Con carácter general, su ordenación se basa en lo establecido en el PTS de Zonas Húmedas. Parte de esta zona, se encuentra afectada por el Dominio Público Marítimo Terrestre, por lo que se distingue la subcategoría Humedal de la ría del Oria, zona de especial protección-DPMT en la que será de aplicación las disposiciones vigentes en materia de costas.

EK\CV GAO-I-2025-04330

≡ Itzaoko eta Izostegiko hariztiak, babes bereziko eremuak. Ekosistemak hobetzeko eremuak - Itsasertzeko LPS (MA1) eremuekin gainjarrita daude, eremu horien helburuak eta erabilera araubidea bateragarriak direlako. Hala ere, kontraesanik badago, Itsasertza Babesteko LPSren araubidea aplikatuko da ekosistemak hobetzeko eremuetarako (MA1).

Era berean, lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan, baldintzatzaile gainjarrien zerrenda hau bereizten da:

— Natura, ingurumen eta paisaia balio handiko eremuak. Baldintzatzaile gainjarriak barne hartzen ditu:

≡ Oriako Itsasadarreko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE-ES2120010),

≡ Hezeguneak - Oriako itsasadarra (LPS).Oriako itsasadarra (II. taldea) eta III. taldeko hezeguneak hartzen ditu: Lasarteko, Arrateko, Egioletako, Arpitako, Errotazarreko, Artikula Haundiko eta Urtetako urmaelak, bai eta Orio-Aginagako urtegia ere.

≡ Balio estrategiko handiko lurzoruak (LPS).

≡ Espezie babestuen habitata. Fauna babestua kontserbatzeko intereseko eremuak babesten ditu. Horrela, honako espezie hauen interes bereziko eremuak babesten ditu: hegoaldeko zuhaitz-igela, kolaka eta hainbat hegazti, hala nola benarriz arrunta, zikoina beltza eta espatula, eta, azkenik, ferra-saguzar mediterraneoa. Era berean, Schreiber muskerraren, bisoi europarraren eta belatz handiaren lehentasunezko banaketa eremuak babesten ditu.

≡ Intereseko landaredia eta habitata. EBko interes komunitarioko habitatak, espezie autoktonoen intereseko formazioak (lezkadiak, hariztiak eta beste hostozabal batzuk), galzoriko espezieak (gorostia, Ophioglossum vulgatum, Carex strigosa eta Dryopteris carthusiana) eta espazio publikoetan eta lorategi pribatuetan dauden eta udalak 2011n egindako inbentario batean sartu ziren 69 zuhaitz bereziak babesten ditu.

≡ Mendizorrotz eta Zabalaga babes eremuak. Donostialdea-Bidasoa Behereko LPPk Usurbilen proposatutako landa parkeen mugaketa oinarri hartuta, eremu horiek bereizi egiten dira eta, gainera, Mendizorrotz Natura 2000 Sarean sartzeko proposamena jasotzen da.

≡ Irisasi onura publikoko mendia.

≡ Paisaia intereseko eremua. Oriako Paisaiarako Ekintza Planean oinarritua (udalak 2016ko urrian idatzitako dokumentua).

≡ Tokiko korridore ekologikoak. Lau korridore identifikatu dira: TK1 (Oria Itsasadarra-Azpiko Erreka), TK2 (Oria Itsasadarra-Kuskullu erreka), TK3 (Oria Itsasadarra-Mapilerreka-Mendizorrotz-Latsaerreka) eta TK4 (Oria Itsasadarra-Zubieta).

